

B O O B I Z I

Bularreko minbizia adin guztietako emakumeei erasotzen dien gaixotasuna da eta hain zuzen ere, ohikoena eta mingarriena mendebaldeko emeen artean. Minbizi honek autoestima falta itzela eragiten du emakumeengan, eta gainera, informazio gabeziagatik jendeak kontuan gutxi hartzen du. Hau ikusita gure proiektua ahal den heinean emakume hauen ongizatea bermatzean eta haien egoera hobetzean datza.

Horregatik, bi produktu; zehazki, bi bularretako eskaini nahi dizkiogu. Gure bezeroen beharrak asetuko dituztenak eta haien gustuak errespetatuko dituztenak. Horrela, bata protesi batekin izango da eta bestea protesi gabe, hau da, kopa bakar batekin. Hori dela eta, gure proiektuaren helburua ez da berria den zerbait eskaintzea baizik eta jada merkatuan existitzen den premiazko produktu bat eskurragarriagoa bihurtzea eta ondorioz, emakume gehiago hura erosteko ahalmena izango dute.